

	HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO AURREKONTUAREN BANAKETA	
	EUSKO JAURLARITZAKO DIRU-SARRERA	FAMILIEK ORDAINTZEN DITUZTEN KUOTAK (**)
2012	45.000.000 milioi €	11.692.000 milioi €
2013 (*)	45.000.000 milioi €	11.692.000 milioi €
2014	45.000.000 milioi €	12.602.000 milioi €
2015	41.681.291 milioi €	12.705.709 milioi €
2016	42.178.253 milioi €	10.873.747 milioi €
2017	42.675.215 milioi €	10.874.785 milioi €
2018	43.035.215 milioi €	10.873.785 milioi €

(\*) 2013ko aurrekontuak ez ziren onartu, 2012ko aurrekontuen luzapena izan ziren.

(\*\*) Aurrekontuetan islatutako aurreikuspenak dira. Kopuru erreala ez da iristen aurreikuspen hauetara.

Taula honetan jaso ditugun datuen **analisiak** esaten diguna, horrela laburtu dezakegu:

- \* 2012.urtean murrizketak ezartzen hasi zirenetik, aurrekontua **nabarmen jaitsi** da.
- \* Denbora horretan, aldiz, haurreskola eta eskaintako plaza kopuruak igo egin dira: 2018-2019 ikasturtean 240 haurreskola zabalik izatera eta 8.600 plazatik gora eskaintzera heldu gaitezke. Haurreskola gehiago, baina **diru gutxiago hauen kudeaketarako**.
- \* Haurreskolak Partzuergoko aurrekontuan familiek ordaintzen dituzten **kuotek izugarrizko pixua dute**. Baina:
  - Haurreskola kopuruak gora egin duen bitartean, kuoten bitartez Haurreskolak Partzuergoak jasotzen duen diru kopuruak behera egin du.
  - Kuoten bitartez diru-sarrera gutxiago: matrikulazioak behera egin du, plaza gehiago eskaintzen den bitartean.

Hau guztia gertatzen ari den bitartean, 2017ko irailean Haurreskolak Partzuergoko plazen ia erdia hutsik zeuden, ez da matrikulazioa igotzeko neurri bat bera ere hartzen eta 0-3 adin tartea eskaintzen duten eskola **privatuentzat 26.627.322 € bideratu zituen Hezkuntza Sailak**.

0-3 adin tartea ez du itunik, beraz, Hezkuntza Saila ez dago derrigortuta 0-3 sare pribatua diruz laguntzera. Nahi duelako ematen du dirua. Eta, bitartean, **Haurreskolak Partzuergoaren prekaritatearen kudeaketan hondoratzen da**.

Zergatik? Zein interes dago honen guztiaren atzean? Noiz arte pairatuko ditugu politika honen eraginak? Noiz aurkeztuko dute Haurreskolak Partzuergoak doakoa izateko bideragarritasun plana? Noiz eskainiko zaie familiei Euskal Hezkuntza Sistema publikoan eskola-bidea egiteko aukera?

